



BIZITEGI ERAIKINA
D MAILA

USANDIZAGA 5



Egilea eta data: Lucas Alday; 1923

Deskribapena

Kantoiko eraikina, behe oina eta jatorrizko sei goi oin dituen, azken biak atzeraemanak. Harlanduzko fatxada, kantoiko alakan eta Usandizaga kalerako ertzeko alboan hormigoizko begiratokia duena, jatorriz galeria ireki gisa (gaur egun itxiak dira) zabaltzen direnak 5. oin atzeraemanera. Eraikitako eraikinak alde nabarmenak ditu jatorrizko proiektuarekin.

Babes erregimena

1. Erregimen orokorra.
Plan Berezi honen D babes mailan integratzearekin loturikoa.
Testuinguru horretan, fatxadaren tratamendua, bertako baoen konfigurazioa, instalazio, publizitate elementu, seinale eta eguzki oihal, eta abarren ezarpena plan berezi honetako ordenantza orokorretan ezarritako babes maila hori arautzen duten irizpideetara egokituko dira.
2. Berariazko erregimena.
 - A. Babesetik kanpo utzitako elementuak edo zatiak: 5. eta 6. goi oinak, begiratokiak eta horien erremate elementuak izan ezik.
 - B. Fatxadako elementu edo zati iraunkorrak: harlanduzko elementuak; moldekatuak.
 - C. Esku hartzeko beste irizpide zehatz batzuk: Erregimen orokor hori arautzeko baldintzak betetzeari lotutakoak, fatxadaren eta behe oineko baoen konfigurazio unitarioarekin lotutakoak barne.